



IKASKETA KOOPERATIBOA

Sarrera

Hezkuntza inklusiboa helburu nagusizat duten ikastetxeek diskriminazioaren ideien aurka borrokatzeko askoz ere eraginkorragoak dira.

Jatorrizko herrialdea eta kultura edozein dela ere, mundu guztian onartzen duten gizarteak sortzeko, gizarte inklusiboak alegia, eta, gainera, bigarren horren bidez, guztientzako hezkuntza integrala lortzen da,

Salamancako adierazpenean suharki aldarrikatzen den bezala. Adierazpen horretan jasota daude UNESCOk antolatu eta Salamancan egin zen (1994) *Hezkuntza-premia bereziei buruzko munduko biltzarren* amaierako ondorioak.

Eta bigarren aukeraren –hau da, eskola inklusiboaren– alde argi eta garbi egiteak ondorio erabakigarriak ditu dokumentu honen edukiari dagokionez: ikasketa kooperatiboa. Izan ere, hezkuntza inklusiboa eta, zehazkiago, eskola eta ikasgela inklusiboak, alde batetik, eta ikasketa kooperatiboa, bestetik, bi kontzeptu desberdin dira, baina elkarri estu lotuta daude:

- Ikasgela ikasketa kooperatiboa inplementatzeari buruzko prestakuntza-aholkularitzako prozesuan ikusiko dugun bezala, ikasgela berean ikasle desberdinekin batera lan egiteko modu bakarra –eskola inklusiboaren alde egiteak eskatzen duen bezala– ikasketa kooperatiboko egitura abian jartzea da, egitura lehiakor edo indibidualisten kaltetan, egun, oraindik, azken eredu hori nagusi den arren.

Nola egin dezakete ikasketan aurrera eskolara doazen ikasle gehienak «ez bezalakoak» diren ikasleek (hainbat arrazoigatik izan daitezke desberdin: ahalmen-urritasunen bat dutelako, beste kultura batekoak izanik, hizkuntza nagusia menderatzen ez dutelako, gizarte-ingurune baztertutik datozelako...) norik bere ikasmahaietan bakarka lan egiten duen ikasgela batean baldin badaude eta irakasleak banaka erantzun behar badie beraien artean hain «desberdinak» diren ikasleei?

Nola egin dezakete aurrera ikasle «desberdin» horiek, baldin eta ikasleak beren artean lehiatzen badira, nola edo hala lehena, onena izatea lortzeko? Kooperatiboki antolatutako ikasgela batean soilik ikas dezakete elkarrekin ikasle desberdinek (ahalmenetan, interesean, motibazioan, kulturen, hizkuntzan, gizarte jatorrian...), beharrezkoa da guztiak lankidetzan eta elkarlanean aritzea, elkarri laguntzea, ikasketan aurrera egiteko helburu erkidea lortze aldera, norik bere ahalmenak ahalik eta gehien garatzeraino.

- Baina kooperazio hori ez da posible izango –kooperazioak desberdinarekiko elkartasuna eta errespetua garatzea eskatzen baitu, dokumentu honen edukiari buruzko prestakuntza-aholkularitzako prozesuan ikusiko dugun bezala– baldin eta aurrez «desberdinak» ikasgelatik kanpo utzi badira, hau da, inklusiboa ez bada.

Nola ikasiko dute lankidetzan aritzen eta desberdintasunak errespetatzen, hau da, elkarrekin bizitzen, gizarte inklusibo batean eta erkidego integratzaileetan, ezaugarri pertsonal desberdinetako ikasleek, ahalmen urritasunen bat dutenek eta ez dutenek, kultura batekoek edo bestekoek... eskola eta ikasgela bananduetan heziak izan baldin badira? UNESCOk aldeztu duenari jarraiki, orientazio inklusiboa duten eskola arruntak, haurrengan –neska eta mutil– zentratutako pedagogia dutenak eta

kooperazioan oinarrituak –hala maisu-maistren artekoa irakastean, nola ikasleen artekoa ikastean– dira bitartekorik eraginkorrena guztientzako hezkuntza integrala lortzeko.

Bestalde, kontuan harturik Estatuko Lege Organikoak oinarritzko gaitasunen inguruan egituratzen duela curriculuma, ondorengo gogoeta eta galdera hauek sortzen zaizkigu:

- Oinarritzko gaitasunen garapenak –batzuenak, behinik behin–, *ezinbestean*, ikasgelako jardueren egitura kooperatiboa eskatzen du. Hau da, oinarritzko zenbait gaitasun ez dagoela behar bezala garatzerik, ikasleen jarduerak egitura indibidualista edo lehiakorrean antolatuta baldin badaude. Zenbait *komunikazio-gaitasun* –adibidez, pentsakizunak, sentimenduak edota gertaerak adieraztea, arrazoitzea eta interpretatzea; besteen ideiak entzutea; kritika eraikitzaileak onartzea eta egitea; bestearen lekuan jartzea; norberarekin bat ez datozen iritziak errespetatzea sentikortasunez eta espiritu kritikoz...– eta *gizarte-gaitasun* –esate baterako, gatazkak ebazteko elkarrizketa eta negoziazioa erabiltzea; taldean lan egitea, norberak dakiena gainerakoek dakitenarekin elkartuz, arazo erkideak elkarrekin konpontzeko...– nola gara daitezke era indibidualistan antolatutako ikasgela batean, ikasleak ia ez badira elkarrekin ezertan aritzen, edo ikasgela lehiakor batean, ikasle batzuk besteekin lehiatzen badira? Gaitasun horiek eta beste batzuk praktikatzea eta, beraz, ikastea, oso zaila da ikasleek ez badaukate ikasgelan elkarrekin, taldean, jarraitasunez lan egiteko aukerarik.

Funtsezko hiru ideia horiek daude dokumentu honetan aurkezten dugun *IK/KI Programa («Ikasteko Kooperatu / Kooperatzen Ikasi»)* izenekoaren oinarrian, bai eta haur-hezkuntza, lehen hezkuntza eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasgeletan ezartzea proposatzen dugun prestakuntza-aholkularitza prozesuaren oinarrian ere.

Programa hori –eman diogun izenetik erraz ondoriozta daitekeen bezala– ikasketa kooperatiboari buruzkoa da, alegia, curriculumeko eremu batzuetako eta besteetako heziketa jarduerak egituratzeko modu bat proposatzen du, parte-hartzaileen arteko elkarreagin sustatuko duena, talde-lanaren inguruan. Esan gabe doa, jakina, irakasleen eta ikasleen arteko elkarreaginean eta banakako lanean ere oinarritzen dela.

Historikoki, hezkuntza-ekintzetan, garrantzi handiagoa eman izan zaie hezitzaileen eta ikaslearen artean gertatzen den elkarreagin asimetrikoari eta ikaslearen banakako lan eta ahalegin pertsonalari. Hezitzaileak ikaslearengan duen esku-hartzea zenbat eta hobe izan eta zenbat eta gogorragoa ikaslearen ahalegina, are handiagoa izango da ikaslearen garapen- eta ikasketa-maila. Ikuspegi horretatik, garrantzi eskasa ematen zaio –batere ez zaiola ematen ez esatearren– hezkuntza-jardueretan ikasleen artean ezar daitekeen elkarreagin simetrikoagoari eta, nolabait esatearren, denbora galeratzen hartu ohi dira esparru horretan egiten diren talde-lanak. Ikuspegi hori oso errota dago oraindik hainbat hezkuntza erakundetan.


Hala ere, Piaget-ek geroztik (1969) –hezkuntza-arloko beste hainbat psikologoren ekarpena ahaztu gabe–, oso garbi geratu da ikasten ari diren **berdinen arteko elkarreagina (haurrak, gazteak edo helduak izan), erlazio simetrikoa dei genezakeena, ikasleen eta irakaslearen artean sortzen den harreman asimetrikoagoa bezain garrantzitsua dela**. Ikuspuntu intelektualetik begiratuta, berdinen arteko harremana da egokiena benetako ideia-trukea eta eztabaida sustatzeko, hau da, pentsamolde kritikoa, objektibotasuna eta diskurtso gogoetatsua hezteko gai diren jokabide guztiak.

Horregatik, dokumentu honetan aurkezten den programaren atzean dagoen ikasketa-egituran, hezitzaile-ikasle elkarreaginaz *gainera* (eta ez *ordez*) oso kontuan hartzen da ikasle-ikasle elkarreagina, eta hortaz, **banakako ahaleginari eta lanari ez ezik (eta ez lan horren ordez) talde-lanari ere garrantzi handia ematen zaio**.

Kontua ez da, jakina, bata bestearen ordeztartzea, baizik eta lehen egiten zenari beste zerbait erantzea.

Ikuspegi aldaketa horrek, hezkuntzako esku-hartze orotan, hiru norabide paralelo eta osagarritan aurrera egitea dakar; edo, bestela esanda, hiru zutabetan bermatutako pedagogia antolaketa konplexu batean sakontzea (1. irudia):

1. *Irakaskuntza pertsonalizatzea*: hau da, irakasten duguna eta irakasteko modua ikasleen ezaugarri pertsonaletara egokitzea eta doitzea. Ikasle guztiak ez dira berdinak (motibazio, ahalmen, ikasketa-erritmo, eta abar desberdinak dituzte), eta hortaz, ezin diegu berdinak balira bezala irakatsi, ezta erdibidean dagoen % 50ari bakarrik zuzendu ere, muturretan dauden % 25ak kanpoan utzita. «*Maila askotako programazioa*» edo «*Programazio anizkuna*» deituarekin erlazionatutako hainbat estrategia eta baliabide dira. Esandako programazio horretan, ezagutzak komunikatzeko eta jarduerak aurkezteko era *asko* erabiltzen dira, irakaskuntza- eta ikasketa-jarduera *asko*, ebaluatze modu *asko*..., betiere ikasgela eta talde bereko ikasleen izateko eta ikasteko era *askotara* doi daitezzen.
2. *Ikasleen (neska eta mutil) autonomia edo beregaintasuna* (ikasketa autorregulatzeko estrategiak): ikasteko orduan, zenbat eta ikasle beregain gehiago eduki, edo, gutxienez, zenbat eta beregainagoak izan, denbora gehiago izango dugu hasieratik horren beregain ez diren ikasleei eskaintzeko. Hala eta guztiz ere, estrategia horiek irakats daitezke esplizituki (ikasleek ikasten ikasten dutela) eta lor daiteke, ondorioz, irakaslearekiko mendekotasun txikiagoa duten ikasle gehiago egotea, hala, irakasleek horren beregain ez diren ikasleei laguntzeko denbora gehiago izan dezaten.
3. *Ikasketaren egitura kooperatiboa*: gela egituratzeko garaian «irakasten» duten bakarrak maisua edo maistra izan ordezt, ikasleak ere, lan kooperatiboko talde txikietan, elkarri «irakasteko» gai eta elkarri laguntzeko gauza izan daitezela, ikasteko orduan.



1. irudia

Sinetsita gaude aipatutako hiru zutabeekin lotutako estrategia-konbinazioz eratutako pedagogia-antolaketa konplexu horrek (konplexua baita aurrean duen erronka) zeinahi hezkuntzako esku-hartzeren xede diren gizabanako guztien garapen pertsonal eta sozial handiena ahalbidetzen duela, ikasle horiek beren artean desberdinak edo oso desberdinak izan arren.

Zein bere aldetik eta bakarturik gara daitezkeen hiru estrategia mota badira ere, irakaskuntza pertsonalizatzearekin eta ikasleen beregaintasunarekin zerikusia duten aurrez aipatutako estrategiak barnean hartzen eta ikasketa kooperatiboaren barruan integratzen dituzten hezkuntzako esku-hartzeak garatzea da kontua. Izatez, irakaskuntza-ikasketa prozesuaren egitura kooperatiboan sakontzen badugu, ikasleen beregaintasuna ere indartuko dugu («arazo» asko ikasleek beraiek konpontzen baitituzte), eta, hala, irakaskuntza pertsonalizatzea ere erraztu egiten da (irakasleek aukera gehiago baitute premia handienez daudenei laguntzeko).

TALDEKO PLANA

Helburu nagusienak:

- Ikasleak, talde lanean ikastea, trebatzea eta aritzea. Ondorioz, ikasle norbanakoa talde bateko kide izaten ikastea, trebatzea eta aritzea.
- Taldean lana egiteko talde lana eta talde-lanaren faseak ongi oinarritzea, definitzea eta zehaztea.

- ***Auto-ebaluazioa talde gisa***

Talde bateko kideak gai dira talde gisa duten funtzionamenduari buruzko gogoeta egiteko eta ongi egiten dituzten gauzak –are gehiago indartzeko xedez– eta behar bezain ongi egiten ez dituztenak identifikatzeko, azken horiek ekiditeko edo konpentsatu ahal izateko.

Ebaluaziorako irizpideak:

- Taldeko plana ebaluatzeko, zeren arabera jakin behar.
- Zer egin dugu, zer egin behar genuenarekin aldendu beharko dugu. Zer egin behar genuen, Unitate Didaktikoaren hasieran irakasleak adierazitako helburu, eduki eta lanekin aldendu beharko dugu.
- Ondo egin dugun ala ez, kooperazioaren helburuekin ere aldendu behar dugu.
- Kooperazioaren helburuekin batera, norberak bete beharreko rolaekin ere aldendu behar.
- Baina ebaluaketak zentzua izateko, denbora esanguratsuan eman behar izan dugu ikasketa kooperatiboan lana egiten.
- Ebaluazio irizpideak, bestalde, jakin beharrekoak dira. Jakiteko, irakasleak esateaz gain, komeni elkarrekin, irakasle-ikasleak, lantzea, zehaztea, berritzea, eguneratzea.
- Ebaluazio irizpideak lantzeko, onena, tutoretzan egitea. Tutoretza planarekin bat egiten du: ikasketak, taldea-egitea, bizikidetzatza, aniztasunaren trataera, aurrera egiteko proposamenak,...
- Ebaluazio-irizpideak, gutxienez, hiruhilerako mantendu genitzake. Urte guztirako ere, gaizki ez.
- Taldeko plana, berriz, ebaluatu, Unitate Didaktiko bakoitzaren amaieran egin genetzake. Errutinak baloratzeko badira, hiruhilean behin nahiko edo taldeak aldatzera bagoaz (nahiz eta hiruhilerako gomendatu), aldatu baino lehen.